

FATCA

DEFINIZIOA

FATCA (Foreign Account Tax Compliance Act) Estatu Batuetako zerga-gardentasuna sustatzea eta herritarrek eta egoiliarrek zerga-betebeharrak betetzea helburu duen araudi bat da.

BETEBEHARRAK

Arau horrek honako hauek identifikatzeko betebeharra ekartzen du:

- Estatu Batuetako herritarrek edo egoiliarrek.
- Estatu Batuetako araudiaren menpe eratutako pertsona juridikoak.
- Jabe estatubatuarrek dituzten erakunde jakin batzuk.
- FAKTA akordioan ezarritako zantzuetariko bat edukirik eskatutako informazioa ematen ez duten pertsonak.

Gainera, banku-erakundeak arestian aipatutako pertsonen kontuei buruzko informazioa eman beharko dio aldizka dagokion zerga-agintaritzari.

Informazio horren barruan, honako hau nabarmendu daiteke:

- **Titularrari buruzko informazioa:** Izena, helbidea, TIN (Estatu Batuetako identifikazio fiskaleko zenbakia), etab.
- **Kontuari buruzko informazioa:** Zenbakia, saldoa eta kontu horren gainean egindako diru-sarrerak eta ordainketak.

Kontuen titularrek FATCA betetzen ez badute, % 30eko atxikipena aplikatu ahalko da Estatu Batuetatik egindako ordainketa jakin batzuetan.

UKITUTAKO KONTUAK

FATCAk zenbait kontu-motatan du eragina, besteak beste, aurrezki-kontuetan, eperako ezarpenetan, inbertsio-funtsetan, balio-kontuetan eta aseguru-modalitate batzuetan.

PROZESUA

Kutxabankek arau hori aplikatzeko beharrezko aldaketak egin ditu. Era berean, arauaren betetzea bermatzen laguntzeko konpromisoa hartu du, bere bezeroei segurtasun eta konfidentzialtasun handiena emanez.

Zure egoera egiaztatze aldera, baliteke aitorpen bat eskatzea.

Arau horrek ez du inolako eraginik izango **Kutxabanken** bezero gehienengan.

INFORMAZIO INTERESGARRIA

Kutxabank erakunde parte-hartzaile gisa izena emanda dago IRS (Estatu Batuetako Barne Errenten Zerbitzua) delakoaren erregistroan.

Kutxabankek ez du zerga-aholkularitzarik ematen. Beraz, araudi horri buruzko aholkularitza behar izanez gero, aholkulari independenteengana jotzea gomendatzen zaie bezeroei. **Kutxabank** ez du agiri honetan adierazitako iritzien, akatsen eta ez-egiteen erantzukizunik gain hartuko.

Informazio gehiago eskuratzeko, IRSren webgunean (www.irs.com) sar zaitezke.

Kutxabank Taldeko erakundeei esleitutako GIIN zenbakiak honakoak dira:

ERAKUNDEA	GIIN
Kutxabank, S.A.	LEJ8RU.00000.LE.724
CajaSur Banco S.A.	LEJ8RU.00001.ME.724
Kutxabank Vida y Pensiones CS y R, S.A.U.	LEJ8RU.00002.ME.724
Fineco Sociedad de Valores S.A.	LEJ8RU.00003.ME.724
GIIC Fineco S.G.I.I.C., S.A.U.	LEJ8RU.00004.ME.724
Fineco Patrimonios SGIIC, S.A.U	LEJ8RU.00005.ME.724
Kutxabank Gestión SGIIC S.A.U.	LEJ8RU.00006.ME.724
Norbolsa Sociedad de Valores, S.A.	LEJ8RU.00007.ME.724
Kutxabank, S.A. (Frantzia)	LEJ8RU.00008.ME.250

FATCA 2014ko uztailaren 1ean sartu da indarrean. Hala ere, 2015ean emango da lehenengoz informazioa.